


# Bost eta sei zifratako zenbakiak

## NOLA IRAKURRI?

Hiru zifratako zenbakiak ezagutzen badituzu, errez jakingo duzu nola irakurtzen diren 4, 5 eta 6 zifratako zenbakiak. Begira adibideak:

**3. 895**

hiru mila zortziehun eta laurogeita hamabost

**11 . 342**

hamaika mila hirurehun eta berrogeita bi

**471 . 342**

laurehun eta hirurogeita hamaika mila hirurehun eta berrogeita bi

**Ikusten duzunez, zenbakiak bitan banatzen ditugu:**
**Alde batetik eskuman daduden 3 zifrak (ehunekoak) eta bestetik ezkerrean gelditzen direnak. Hauek izan daitezke milakoak (4 zifratako zenbakietan), hamar milakoak (5 zifratako zenbakietan) edo ehun milakoak (6 zifratako zenbakietan)**

Beraz, 1000ra arte ezagutzen badituzu, 999.999ra arte kontatu dezakezu!




# ARIKETAK

**Ze zenbaki da? Idatzi hutsune bakoitzean dagokion zenbakia (zifraz)**

- Mila berrehun eta hogeita zazpi
- Bi mila zazpiehun eta hamaika
- Sei mila bostehun eta hogei
- Bederatzi mila ehun eta sei
- Lau mila hirurehun eta hirurogeita bost
- Hamar mila seiehun eta laurogeita hamaika
- Hogeita bost mila berrehun eta berrogei
- Berrogeita hamar mila ehun eta bi
- Hirurogeita hiru mila bostehun eta hogei
- Hogeita hamairu mila hirurehun eta hamar
- Laurogei mila seiehun eta berrogeita bat